# Mandala propioak sortzeko gida

## Argibidea orokorrak

Mandalak nahiz beste irudiak ikasleen ezagutza prozesua ebaluatzeko lagungarri izan daitezke. Kasu hauetan, ikasleek ikasitako eduki eta prozedurak mandala forman islatzea da xedea. Dena den, kontuan izan behar dugu ez dela sekula ere egindako mandalen edertasuna neurtuko. Horren ordez, ikasleak mandala horiek osatzerako orduan ikasitako kontzeptuekin eginiko erabilera eta konexioa baloratuko da, eta baita lana egiterako unean izandako jarrera ere.

# Mandala propioak sortzeko gida

## 5.Talde lanean

1. Lehenik eta behin, zerrenda itzazu gai honetan landu dituzun eduki eta kontzeptuak:

2. Sarri zaila izaten da erreferentziarik gabe irudi bat eratzea. Halako kasuetarako forma abstraktuetatik abiatzea egokia izaten da, eta taldean bada errazagoa da oraindik.

- Horretarako, talde txikitan bildu eta folio bat zortzi zatitan moztuko duzue bakoitzak.
- Ondoren, zati bakoitzean pare bat pintura tanta bota eta erditik tolestu pintura orbana paperaren bi aldeetan itsatsita gelditu dadin.
- Utzi pintura lehortzen eta nahastu bakoitzak sorturiko pintura orbanak mahai guztian zehar.
- Orain pintura orban horietan zerrendan aipatutako elementuak bilatzeko unea da. Orbainen bati aipatutako elementuren baten antza hartuz gero, aukeratu ezazu eta osatu irudia errotuladore batekin.
- Era honetan, zerrendako elementuak ilustratzeko inspirazio marrazki ugari izango dituzue taldekide bakoitzak.

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.

# Mandala propioak sortzeko gida
## 5.Talde lanean

3. Mandalaren zirriborroa sortzeko ordua da:

- Saiatu edukien zerrenda hori guztia forma geometriko ezberdinen barruan irudikatzen.



- Zirriborroa sortutakoan, saia zaitez zure mandalari hainbat apaingarri gehitzen. Hona hemen zenbait adibide:



Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.

# Mandala propioak sortzeko gida

## 5.Talde lanean

# 5.Talde lanean

4. Behin betiko mandala

- Mandalaren zirriborroa bukatzean, nabarmendu guztia errotuladore beltz bat erabiliz.

5. Erakutsi mandala zure ikaskideei, eta azaldu nola eta zergatik sortu dituzun mandalaren elementuak. Nahi izanez gero, zuk sortu duzun mandala koloreztatu dezakezu, edo alboko ikaskideari eman, hark koloreztatu dezan zuk berea koloreztatzen duzun bitartean.

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.